

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE


DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Pamplona - Mayo - 1966

DIRECTOR: J. E. URANGA

Aralarko Ostatu berria



Aralarko Elizaren ikusbidea geroko Ostatu berriarekin. Napar etxegille Cia eta Arteaga jaunen aurre-eginkizuna. Aurki Aurre-eginkizunaren baimena eta bere urbillen eraikitzearen berriak izango ditugu.

NAPARROKO BIZIA

(Maiatzak 20)

Queipo de Llano jaun agurgarria bere eginkizun berriari lotu da Naparroko zaindaritzan Gobernadore bezala.

Diputazioan gaur ditugun gizonen bigarren urtea bete dute beren eginkizun larrak. Orai arte egindakoa: industri kontuan eman dituzten urratsak oso onak izan dira. Diru asko sartu da eta langile askorentzat irabazbidea ekarri du. Gañera, Naparroko bazter guzitan banatzen dituzten lantegi berriak. Urte gutxi barne bilduko dira ereintza onen fruitu ugariak.

Beste eginkizun batzutan ezin dugu orri bera esan. Nekazalgoak eta abereizaintzak larrak ikusten dute beren burua; gutxi, oso gutxi da egin dena. Orai asiko omen dira behar bezala laguntzen. Lenbailen obe...

Mendi, bideberri eta erakusketan ere asmo onik ez da falta. Bideberritan 250 millonen lana da uda ontan egiteko emana dena. Iruñetik Alsasuko bidean era Tafalla aldera, batez ere. Tudela aldean ere ari dira gogotik. Esan behar da Tudela dugula gehiena aurreratzen ari denetarik bat.

Toma posesión de su cargo el nuevo Gobernador Civil, Excmo. Sr. Queipo de Llano, Conde de Torano.

Ha cumplido dos años de gestión la actual Diputación. Se considera que los trabajos realizados para el desarrollo han dado buen resultado en la industrialización tanto por su volumen (en capital y puestos de trabajo) como en distribución geográfica, pues se ha conseguido que las fábricas no se concentren en la capital. En este aspecto se considera muy meritorio el esfuerzo de cooperación de los Ayuntamientos navarros. El fruto de esta cooperación se recogerá dentro de pocos años.

En los demás aspectos del desarrollo no se han conseguido efectos tan importantes, aunque los programas relativos a agricultura y ganadería, montes, carreteras y cultura han de merecer sin duda una atención preferente a partir de este momento.

En carreteras hay obras contratadas por importe de 250 millones de pesetas. Estas obras empezarán a verse este verano. Las más importantes corresponden a la comunicación de Pamplona con Alsasua y Tafalla y a la red radial de Tudela. Tudela es uno de los puntos de Navarra que más va progresando.



Munduko gertaerak

VIET-NAM

Budistak ez dute begi onez ikusten Ipar-Ameriketarako lagunduta buru egiten duen gobernamendua. Elkar artu nahi lukete, amerikanoak beren etxera bialdu ta, erriaren gogoa ikusiz agintariak aukeratzeko. Indar aundiko mobimendua da eta arrisku aundian bezala jotzen dute eskuinekoek an luketen egitekoa.

Ala-ta-ola, ogeitabost urte badaramazki Viet-Nam-eko erri gaizoko su bizian erretzen. Japon sartu zakion lehenik; Frantzia'gandik berexteko izan zituzten istilluak, gero; eta orai, au!

POLONIA

966'gn urtean, errege odoleko jaun aundi batek bere meneko serbitzari guzietan, bataioko urak artu zituen Polonian. Aurten, mila urte betetzea ospatu dute angue eliztarrek, Wiszynki kardinalaren inguruan. Aita Saindua joatekoan ere ibili zen eta ango agintarien trabak eragotzi diote. Festa ori dela ta, aleman eta beren arteko gorroto guziak bazterrera uzteko eskatu dute eliz-artzaiak.

Poloniak ogeitamar milion arima ditu, eta gehienak katoliko. Agintari komunistak dituzte. Alemaniako berenganatu zuten lurrari esker industri ona sortu zaio; etorkizunik aundiena, ikatza.

TXINA

Azken berria. Txinak bota du bere atomika. Asieran uste izan den baño aundiagoa, naski. Hidrogeno'zko aunditakoa.



Españako berriak

(Maiatzak 20)

Gibraltar dela ta, Madrid eta Londres elkar izketan asiak dira. Ez da lur aundia: malkor bat. Alare, itsaso aietako giltza uraxe da. Eta garai batez orai baño gehiago.

Ogeitabost milla jende bizi dira aitzarri artan; xinurri kafia? Duela 250 urte, Espāñako erregen arteko eztabaidak ongi baliatu zituzten ingelesek, sudurrak an sartzeko. Ateratzek lan emango du.

Alemanialdera jotzen badugu aize obeak eldu zaizkigu: Europan batasuneko atariak jotzen baditu lagundua izango dela, agertzera eman dio Bonn'ek, Espāñako gobernuari.

DIRU KONTUAN

Diru nolanahi askatzeko diru-erretzeak (bankoak) dituzten trabak, arinduko omen ditu gobernuak. Alare, etxe-lur eta orubia, jatekoak eta bizitegi aberatsegiak saldu-erosiz ibiltzeko balinbada, berriz ere trabak sortuko dira.

Iruñen laister egingo duten automobilaren erakusketa egin da Madrid'en. AUTHI, auen izena.

Rusiarekin ere artu-emanetan sartu behar ginukela diote, Espāñako zombait gizon ospetsuk. Munduaren itzuliak!

«Mail goratze» Plan de Desarrollo delakoan, bigarren sayoa prestatzen ari dira. Nekazalgo eta abereizaintza lagunduko omen dituzte.

Burgosko putzuak ere ematen izan behar dute neurri polita. Berrogeita hamar mila kilo petroleo botatzen omen du, egunean, putzu bakoitzak. Merkatuko dute oraikoan?

NASKETAK

Bazter guzitan nasketak, aldi ontan, ikaskintzan, estudiantek ez dira konten. Beren buruzagi, aintzindari edo, nahi den bezala erranik; buru egiteko artzen dituzten oien aukeratzeko modua berritu nahi lukete.

La atención nacional está puesta en las conversaciones sobre Gibraltar entre España e Inglaterra. Gibraltar es una roca que tiene una gran importancia estratégica por dominar la puerta del Mediterráneo. Hoy es base naval y estación de carbón. Tiene 24.000 habitantes. Fue capturado por la flota anglo-holandesa durante la guerra de Sucesión, cuando luchaban por la Corona de España las Casas de Austria y de Borbón. Inglaterra aprovechó esta guerra para apoderarse de un punto tan importante en el orden militar que figura como colonia inglesa hace más de 250 años.

El Gobierno Alemán, por medio de su Ministro de Asuntos Exteriores ha declarado que apoyará a España, si ésta desea asociarse en el Mercado Común.

Según manifiestan las revistas de Economía se van a suavizar las restricciones de préstamos de los Bancos, pero aquellas restricciones se mantendrán cuando la finalidad sea acaparar mercancías esperando a que suba su precio, especular con terrenos de construcción, o construcción de pisos de lujo sin capital inicial suficiente.

En Madrid han sido presentados al público los automóviles de turismo AUTHI, que van a ser construidos en Pamplona.

Algunas opiniones autorizadas españolas (entre otras las de los Sres. Martín Artajo y Areilza, ex-Ministro y ex-Embajador respectivamente) han explicado la conveniencia de que España debe entablar relaciones diplomáticas con Rusia.

Han empezado los trabajos de preparación del II Plan de Desarrollo Económico y Social, confirmando que pondrá su mayor esfuerzo en el desarrollo de la agricultura y la ganadería.

Cada vez aparecen como más interesantes los yacimientos de petróleo de Burgos cuya producción es de 55 toneladas por pozo y día, producción que se considera muy rentable.

Han tenido lugar diversos movimientos estudiantiles que desean una reorganización de sus órganos representativos.

En el Viet-Nam, los Budistas se oponen al Gobierno Militar apoyado por los Estados Unidos y propugnan el armisticio, la retirada de los americanos y unas elecciones en todo el país para decidir el futuro Gobierno. El movimiento budista es muy importante y se estima como peligroso para la política occidental en Asia. El desgraciado país del Viet-Nam lleva ya un cuarto de siglo de guerra (Invasión del Japón, Guerra de Independencia contra Francia, y la actual guerra civil).

En el año 966 un príncipe polaco llamado Mieszko abrazó el cristianismo con todos sus súbditos. El pueblo de Polonia ha celebrado el milenario bajo la presidencia del Cardenal Wiszynski, no habiendo acudido S.S. el Papa por la oposición del Gobierno. Con aquel motivo, el episcopado polaco ha hecho una invocación al pueblo recomendando el olvido de las mutuas ofensas entre alemanes y polacos. Polonia tiene hoy 30 millones de habitantes, casi todos católicos. Su Gobierno es de tipo comunista y a consecuencia de las agregaciones de territorio alemán se ha transformado en un país industrial cuya principal riqueza es el carbón.

Según algunas informaciones, la bomba experimentada en China es de las llamadas de Hidrógeno, de alta potencia.

(Pasa a 2.ª página)

Aurrera beti Naparroa

Adiskide on batek zuzendu ta gure eskuetaratu da «PRINZIPE DE BIANA» ateratzen asi dan, illerokoa noski, bi orriko zenbaki bat.

Lenbiziko lerroetan agertzen da idatzia, «Euskera zabaltzeko» argitaratzen dala illeroko au. Sendopen onek, ¿nor er du poxtuko? euskaldun zintzo ta egiazko naparra dan guztia, gure iritiz. «Beñere ez dala berandu, zoriona datorrenean», esaten dute erdeldunek, eta ala, onartu zagan, Naparroako Diputazioeak eskeintzen digun erosotasuna gaurko egunetan, ekinaz gure indar guztiakin, zentzu osoakin, al dan guztia egiten, gero aldetik.

Gure erri zar au, Euskaldunen sorlekua da. Esan nai degu, naparrak gerla zugaitzaren zain ta ondo, eta beste gañerako Euskaidu-

nak, ondo onen adarrak, nai ba dezute, adar bezala guriagoak, apaiñagoak, gaurko eran jarriagoak; ez ordea sustrai aundiagokiak. Orixe aundiak (G. B.), bere Euskararen alde egindako urraketan, agertu zigun argi ta garbi, Naparroa zela Euskera zabaldu zuna Gipuzkoa, Bizkaia eta beste anai guztiari, gure izkuntza berexi au, bere kutuntasun ta zoragarritasun guztiakin.

Idaz-aurreko bezala datozte orain arteko lerro ok, eta jarrai zagan aztertuaz illeroko begiko au. Euskeraz esaten dunaz gañiera, arkitzen ditugu ere, beste zeinbait gai, edozein izperringitan bezalaxe: gure errietako berriak, atzerrietakoak, gertaera zarrak ta abar; bai baña, gai batek gelditu gaitu era berezian, bere gain oldozten zentzu

osoakin, Naparroko gaitan bearrekoena dalakoz ta gure zaletasun aundiena berantzako daukagulakoz, sortu giñan ezkeroz: «NEKAZARITZA ETA ABEREN» txokoa.

Idatzi sakon bat irakurri degu gai ontaz. Gure ustez, barrenbarrendik atera zaiola idazleari, eta ez dioa bide okerretik bertan adierazi nai diguna. Nappar ta nekazari bezala jasotzen degu iritzi ori, eta denbora berean eskeintzen diogu gure laguntza (txikia bear bada izango dana) ziñezkoa, illeroko ortan agertzen diran asmo begiko oiek sendotzeko, eta gogoz gatoz gañiera lanera, guk dakigun pixka argitaratzea. Illeroko orren orrietan, eskatzen du ere laguntza au eta egiazko euskaldun danak, ¿nola ukatu?

Gure nekazaritza, batezere baso-etxetan ez dago errax aurrerazeko eran; bai baña egin ditekera ana dana ordea... Gora-bera aundiak darabilzkgu garai ontan. Tinka aundiak egin naiean belako aberastanaren billa, eta maizka bertan geldituz, askotan. Nekazaritzak ez dula ematen guk nai aiña, alde batetik, bestetik lan gogorra ta zikiña dala, baña beti gure burua astindu gabe bear dan zentzuz gauzari begiratu gabe. Ola ez dira lanak erraxten, garbi egiteko bidean jartzen, uzta ugariak biltzen.

JOSEBA IMANOL

EUSKAL BESTA IGANTZIN DIPUTAZIOAK ERATUA



«Institución Príncipe de Viana»ko Euskal Aintzindariak ez daude lo eta beti ari dire euskeraren alde zerbait egiten. Yoan den Maiatzaren 15'ean Igantziko errian euskal-besta polit bat antolatu zuten. Bereartan eman zabezten erri ortako mutiko ta neskatiko euskaldunei eskuarazko esamintan irabazi zituzten sariak eta egun ortan ere ospatu zen Baztan, Bidaso ta Ultzama aldeko bertsolarien txapelketa. Norgeiagoketa untan sei bertsolari aritu ziren eta merezimendu guziarekin, Mikel Arotzamena lesakarrak lenbiziko saria ardietsi zuen, bigarrena Madariaga aranaztarrarentzat izan zelarik. Leiaketa ontan arizan direneta-tik, lau bertsolari berexi dituzte Nafarroako Txapelketa Nagusian aritzeko, auen artean: Arotzamena bi anaiak, Madariaga ta Mujika. Lau koblari auek, Larraun ta alderdi artako bertze lau oberenekin batean ariko dire, Iruñen egin gogo duten Azken Txapelketa Nagusi ortan.

Aurten Yainkoak lagun Euskalerrri osoko Txapelketa egin bearra omen da eta dagoneko Nafarroako euskal aintzindari oiek ernatu dire eta gure lurraldeko txapelketa moldatu dute oberenak berexiak izan ditezten gero Euskalerrriko Txapelgo ortan Naparroaren izena aldeztu dezaten.

Igantziko euskal besta ortan ere aritu ziren Iruñeko «Mutiko Alaiak» deitzen den batasuneko dantzariak eta baita ere Peru-Txiki parregiilea irri-solasetan.

Zorionak Igantziko aur euskaldunei eta beren guratsoeri eta gure gomesmen bizienak «Institucion Principe de Viana»ko euskal aintzindari-ri eta segi dezatela gure euskeraren alde lana egiten.



MAIATZA

Lesakako xahar bati adittuketu nion berriki erran xahar au: «Maiatza, neskatx ederra biño alferra; otzak eta gosiak illa; bere alxia suari eman ziona, menditik elurra ez ekartzeagatik».

Eztaikit gure arteko erran onek —edo obekigo: Maiatza euskal izenak—, ikustekorik bai ote duen antziñeko erromatarren sinesteakin. Ez dut uste.

Gure «Maiatza», «Maia» latiñetik eldu ote den erraten dute yakin-tsuak. Erromatar jentillen sinestean, delako «Maia» au, jainko-emazte bat zen. Arrosaz eta liliz apaindatu-ko gazte eder baten irudian agertzen zuten.

Biak —Maiatza eta Maia— gazte ederrak. Biño gurea, alferra. Eta ez nolanzhikoa: otzak eta gosiak ill arterañokoa; elurra menditik ez ekartzeagatik, bertzeke bere alxia suari eman ziona.

Folklore ta Maia-Maiatzaren zalantzako artu-emanak alde batera baztaturik, yo dezagun aurtengo mayatzara. Neskatx gaztea izan arren, etzaigu azaldu oraindik ez gazte ta ez eder. Eta bai sorguin-atso zikin, zirtzil, gosetua. Euria, lañoa eta otza izandu dira bere lagunak. Karrika-dantza polita gauden urte-sasoiberako.

Biño goazen kontuz. Ez da oraindikan illa. Gaztetzen ahal da; bere edertasunak xoratzen ahal gaitu. Agian bai, Bada beharrik bazterretan. Eskertuko genioke. Batezere nekazariak. Etorri dedilla eder eta langille. Lanik aski arkituko du.

Lantxo au akittu bezelaxe, iduri du gure Maiatza asarretu zaigula. Sekulan bezain argitsu ta pinpiriña gaur esnatu zaigu. Erran nahi liguke bezela: «Zuen kontuak, kontu. Ni beti neskatx ederra, naiz alferra».

Orriagako Beilak

Salbatore ondoko astea, aste aundia Orriagan! Mendialdeko erriak, zoin beren egunetan agerraldia egiten diote Ama politari. Auskalo denborako oitura. Aurten, gañera, Aita Sainduak mundu guzira zabaldu duen Barkamen Aundiko (Jubileo delakoaren) irabazbidea ginuen.

Mayatzak 23; Auritze. Auritzarrak etxeokak ditugu, eta etxeke gisa egin oi dituzte gauzak: bide gutxi ta zelai, eta iruzki delarik itzal ona. Meza entzun eta eguerdiko, etxera. Auritz-berrik ere berdintsu ditu bere egitekoak, orze-gunean.

Asteartea, 24.—Luzaidek badu bide gehiago: emezortzi km. bideberri; laster bidez, ez amebeste. Nolanahi dela seieta etxeok atera eta bederatzikiak biltzen dira gainera orduko. Guardiaren etxora ere, ten-tagarri, bide ortan beti...

Meza nagusi ondoan Orriagako apez nagusiek gasna ta ogia —arño ahantzi gabe—, eskeintzen die erriko agintarier. Luzaidek bakarrik du berexkuntza au. Eta luzaidarrak dira bakarrik eskuaraz Ama Birjinari otoitz egiten diotenak inguru guzian. Erdi negarrez errana.

Arzibar, Erro ta Ayezku bertzte iru egunez etortzen direnak. Iruak gurutzek soinean dituztela. Jendealde aundiena eta gurutze pisuenak arzibar'darren gain. Erro aldekoak gurutze fin eta otoitz politak. Ayezkanuek ehun urten buruan beritua dute beilan Orriagara etortze au.

Seriositasun latz badute iru erralde auetako beilak. Batzuk orotxik (oñutsien), eta gatinak errestan aniztetan, hunkigarri da arropa beltze-

tan sartutako gizon aien otoitz doña.

Eta ori bai; batzuk eta bertzek Amari kezka ta arrangura guziak

lenbaitlen erraiteko ezin-egona biotzean. Orriagako Ama! Zure izan ditezela Auñamendiko bizkarrak; eta zure, Eskualerri gaixoal!



ORRIAGAKO ANDRE MARIARI

Erro aldean ikusia dut pago aundi bat bilutsik, igaz geiegi moztu zuten da aurten daukagu zaputzik...

Euskera zarra igesi doa baillara eder ontatik... Orriagako Ama maitea, zaindu, otoi, galtzetik!

Udaberria dalarik ere aurten kukua mututu...

Guraso zarrak euskeraz mintzo, semeak ezin aditu.

Erro, Lintzoain, Mezkiritz, Esnoz Aunitz, Auritzperri, Loitzu, Karlo Magno ortxe autsi zun endak altxa al baleza buru!

Mayatza, 1966

AZTIRI

MUNDUKO GERTAERAK

EGO-AMERIKA

Jakina da erri onen aberastasuna; alare, aurrera ateratzeko, aztapu aundiak arkitzen ditu bidean. Venezuelak agertzera eman du, European egin den Batasunaren antzeko zerbait sortu behar luketela. Ongi artua izan da asmo au eta, bero beroan—Uztailan, izan er—, Buenos Airesen biltzekoak dira eskualde aietako gizonak.

U. S. A.

«Gemini IX» delako tresnaren ateratzea makurtu da. Bere bi gizonekin, iru egunez ibili beharra zen zeru alde ortan. «Agena» izeneko beste zirta bidean billatu eta zerbait egitekoak ziren arekin ere. Eta arrigarriena, aidean zintzilik utzitako gizon bat eskuratuko zuten. Oiek ziren asmoak.

«Agenak» ezetz esan du, eta lurretik jasotzen asi orduko lertu ta autsi biurtu da. Bi gizonak an dira beren etxetan. Ilargira jendea bialtzeke anitz balio omen du «Gemini IX» egiteko den lanak.

Ya es sabido la gran riqueza natural de los países hispanoamericanos y a la vez los graves problemas de desarrollo económico y social que padecen casi todas las naciones tan vinculadas a España. Hace unos días Venezuela ha expuesto a las demás naciones la idea de dar un paso adelante organizando una Comunidad Económica parecida a la europea que facilite la solución de aquellos problemas. En el próximo mes de julio se reunirán en Buenos Aires representantes de todos los países para decidir sobre esta feliz iniciativa de Venezuela.

Los americanos tenían ya todo preparado para realizar uno de los experimentos del espacio más arriesgados. Una cápsula (Geminis IX) iba a permanecer tres días en el espacio, ocupada por dos pilotos, realizando maniobras con otro artefacto (el proyectil «Agena») y ensayando entre otras cosas el salvamento de un hombre suspendido en el espacio. Pero el proyectil «Agena» se desintegró a poco de lanzarse y la operación se suspendió. Como es sabido, esta fracasada operación tenía mucha importancia como preparación de la llegada del hombre a la Luna.

ERRIZ - ERRI



IRUÑA

ARALAR-KO YONDONI MIKEL AINGERUA IRUÑEN

Ohitura zahar guztiz eder bat egiten da aspaldidanik Bazko bihar-muneko astean Iruñen.

Xede ortarako Iruñar jatorrak urtero biltzen dira, Takonerako inguruetan astelaren arratsaldeko zazpiterdiak urbil, Aingeruaren zai, Miserikordia «Aingerutxoaren» aldamenean. Besarka bat elkar ematen dute bi aingeruek, gero «requiem» bat errezatu ondoren aspaldiko gaixtakin eta lapur batzuen animen alde; badoaie Aralarako Aingerua apezek eta jendeketak lagundurik, S. Nicolas-ko Parrokira, nun egiten duen egun artan bere leenbiziko pagsaldia.

Gisa huntan ba darama Aingeruak Iruñen aste osoa, elizez-eliz han hemenk, baita ere bisitak egiten etxetxe-erri, ala nola kolegio, konbentu eta Agintarien etxetan.

Azken egunean Igandekari, etortzen bezala azken agurra ematen zaio sarreerako toki berberan Takonerako zelaian.

Leenik San Lorenzo Elizan Meza nagusi bat ematen da predikuakin eta bukatzen da zeremonia, lurrak eta landarearen bedeinkatzearekin.

Zenbait badoazi oñez apur bat geiago Miluzeko zubiraño, non abiatzen dire Aingeruaren eremataileak bere zaldietan itzulia egitera, Iruñerriko bide ilaburretatik barna bere Aralar mendiko betiko egoitzara.

Beste urte bat artio ba, Aingeru goresgarria, eta zaindu zazu gaitz guztietatik gure herria.

ULTZAMA

Maiatzaren 15-an Ultzamako ama-lau erriak kristau familia bat eginik Belateko Amaren inguruan bildu dira. Aspalditik datorren oitura da. Goiz-goizetik erri guztien neska, mutillak eta aurrak ainziñako eskal jantziak in apaindu ziran. Goizeko zortzietan amalau erriak abiatu ziran Alkozko errira. Bidean,

Auzetik atera zirenei bildu zitzaizkieten beste errietakoak. Ikusgarria zan benetan Ultzamarren Ama Zerukoarengana joatea, bi erkan, erdian beren elizetako Gurutzeak zituztela. Bide guzian Eliz Amaren asmoak eta kezak gogoan zituztela, Belateko Amari kantuak eta otoi-tzak zifnez eskeñi zizkioten. Alkozko erriak lorez eta zinziakari edere- rrez apaindurik, kaleak eta bide baztarrak txukun garbiturik ongi etorri bero bat eskeñi zien beren senidei. Amaiketari Belateko Amarekin erri-ko kaletan barna ibillialdia ta kale nagusian Meza Santua. Elizan ezin kokatu baitziran an bildu ziran gu-ziak.

Atsaldeko lauetan, Leizako abes-lariak saioaldi jator bat egin zuten. Txalo aldi gaitzak entzun zituzten. Arriturik gelditu giñan ain ederki kantatzen etzun-da. Ondoren, Ultza-mako dantzari berriak erriko plaza- n etzigiten guxiago arritu. Neska- tx eta mutillak eskal erriko danta- za politak berri-ri nai dituzte. Txo- raturik egon giñan dantzari-ri begi- ra. Zori onak, ongi irabaziak dituzte. Jarraitu aurrera. Arratsaldeko zortzietan, Elizan Belateko Amari agur esan ondoren, goizean eginda- ko bide beretik eta era berean de- nak abiatu ziran oñez beren erri- tara. Ezin bukatu degu Ultzamako billera zoragarri onen antolazalei zori on egiazkoenak eman gabe.



LEIZA

Euskal-Erria berez abeslaria da. Euskaldunak bere biotzeko pozak, naigabeak eta asmoak maiz kantua- ren bidez agertzen ditu. Euskeraz- ko abestiak aberatsa da benetan.

Leizako errian orain sei illabete 40 gizaseme ta neskatz, Florencio Irurtia zuzendari dutela abesti ikas- keta asi zuten. Geroztik astean bi al- diz egiten zuten beren saioaldia, larunbate gabean eta igande goize- tan. Abeslari auen asmoak beti txal- ogarriak izandu dira: Elkartasuna, Erriaren gorapena, Abestiaren jak- intza, beren erriarrei saio-aldi atsegingarriak eskeintzea.

Ainbeste egunez lan gogorra egin ondoren, Aprillaren 17-an Parroki- ko zine saloian, gañezka erriarrez beterik, lendabiziko agerraldia egin zuten. Txalo aldi berok eta luzeak, berak merezi ainbatekoak jo zizaiz- kioten. Zorionak eta jarraitu zuen asmo bikañean. Jakin dugu iru edo lau errietatik deituak izandu zera- tela. Bejondaitzela!

Leizako errian Ikastola Profesio- nalak aurtengo udazkenean idiki- tzen diru. Amalau urtetatik gorako mutikoak artzen dituzte. Garagar- illaren 20-an Leizako Ikastola be- rean izango dira examiñak. Dator- ren Urrian ere berriz izango dira oraingoetan ongi ateratzen ez diri- nentzako eta eskatzen duten ber- rientzako. Ogei mutiko badira eska- tu dutenak. Ogeitaamarretaraño sar- tu ditezke. Jakiñen gañean egon, nai duzutenentzako bizitegia ere presta- turik daukatzela. Gai ontan berri guziak jakin naiez arkitzen zeraten guziak, galdetu zuzte zuzen bide onekin: SR. DIRECTOR DE LAS ESCUELAS PROFESIONALES DE LEIZA. Berriak eta errestasun gu- ziak pozik emango zaizkitzue.



SANTESTEBAN

Nekazaleak kezketan arkitzen di- ra, zergatik eraintzako denbora di- joa eta oraindik ia asiera bakarra eman diotela lurra apaintzeari; eta belaiak, arrigarrizko belar aldeakin, ebakitzeko prest daudela batzuek, eta ikusiz bi lanak, erain eta belar ebaki, baten datortzela ta baten eziñ egin dituztela, eta nai ta naiez, belar asko galduko zaiotela.

¿Erabakiko aldira nekazaleak bel- lar-karobi edo belar-zilo eragitera? ¿Zeñen ongi etorriko zaien egiñak izan ba zituzten olakoetan!



ELIZONDO

Baztandar eta ondoko errietako nekazari maiteak, aize txarrak zauri- tzen ditu zuen nekeak. Lur-langi- leak ezin arpatu eta zuen diru artze bideak, salmentaroko aratxeak eta txerriak beren sarietan errekarat- uak. Denbora ilunak ok, baña ilun- tasun unen artean argi txiki bat agertzen zaigu. Auxen da: denbora gutin barnean gure artera etorriko da CAJA DE AHORROS MUNICI- PAL DE PAMPLONA. Baztango baserriak nai ditu bere laguntzakin sendotu eta azkartu. Asmo aundiak dituzte nekazarien alde eta al duten guztia eginen dute bizitasun ohea gure bazter-etxetara ekarri naiez. Biotzez ematen diegu, gure esker- rak.

BAZTAN ALDETIK


LEKAROTZKO IKASTETXEA

Baztango txoko politenetako ba- tean, leku zelaian eta ballararen er- dian kokaturik dago Lekaritzko Aita Kaputxinoen Konbentu ta Ikaste- txea, duela 75 urte Aita Llevaneras Yaun agurgarri zena orko erretore zelarik eraikia. Igaro diren urte oietan 8.000 ikasle ibiliak dire, orai mundu zabalean edaturik Lekarotz- ko izena aipatzen dutela. Oroitzap- en hunkigarriak denentzat, bai ikasle izandakoentzat nola irakas- leentzat eta ohore aundia ere Napa- rro ta Euskalerrarentzat.

Gizartea aurrera doa eta gizadia- rekin batean gauz guziak ere, ortaz bada Aita kaputxinoek ikasle bata- sunarekin batean Ikastetxe berria eraiki bearra dute, lenagoko zahar- reren inguruan eta aurrerapen gu- zietaz ornitua. Ikastetxe berri au Europako oherenetakoa izanen omen da eta bai jakintza gaietan nola kirol yostetak eta ikasleek bear dituzten lasaitasunetaz, guzien ga- ñekoa. Baztandarrak ere aunitz poz- tuzten gara, Ikastetxe berri orrek gure eskualdeari ohore aundia eman- nen dio eta berriz ere Lekarotzko izena Baztangoarekin batean mundu zabalean edatuko da. Zorionak.

Yoan den Aprillaren 26'ean ospa- tu konbentu ta Ikastetxe zaharraren diamantezko eztaiak eta denbora be- rean Berriaren lenbiziko arriaren jartzea, besta ederrak eta hunkiga- rriak eginak dituztela. Iruñeko Ar-

Ultzama egunko egunean



Nafarroko Mendiaren Bale ederra Iruñetik 23 kilometrotara da- gona. Orain bi urte Lizasoko erriaren salmentari buruz esamesa aunitz eta izkribu geiegi izan zirenan Ultzamako izena mundu gu- zian zabaldu zan.

Baño, bearrik, ordudaniñ Ultzama aurrera joaten asia da. Datorren udazkenean Ultzamako amalau errietako eskolan adi- ñeko umientzako Eskolategi bateratu berria leen aliz irikiko da, amar milloi pezetako balioa izanen duena, bale guziko neskatiko eta mutikoak egunero beren errietatik autobusetan eramane- k, Eskolategi aundi bakar ontan bilduko dira egun osoan egoteko; baz- kari eta guzi bertantxe emango zaiote. Oitura den ikasketaz ga- ñera eguneroko orduerdi bateko euskera ikastaldia izango dute UL- tzamako umiek, bai ta soñu eta euskal dantzen eraskusketak ere.

Aiuntamenduak Arraiz eta Alkozko errien arteko «Lanterietako zelai zabal eta propioa» apaintzen eta moldatzen ari da. Toki onek argi- indarra, ura, eta bideak bear ditu.

Lau lantegi edo fabrika dira Ultzamara etortzeko asmotan di- renak. Oietatik aundiena Frantziako «Danone» izenezko ongi eza- gutua. Esnekiak edo esniarekin egiñikako mozkiñak egingo ditu. Fabrika onekin esnegintza indartu eta ugartuko da.

Lantegi auek kanpora joateko gendearen joerako itzaldura eka- rriko dute, uste denez.

Ultzamako «Abelazkera-Ikastegi» bat ipintzeko egiñalak eta urratsak ere emanak dira.

«Golf» Elkarteak «olf yokatzeko zelaia prestatzeko azken lanak egiten ditu. Elkarte onek «turismo» delakoaren zabaltzeko len- biziko bideak iriki dizkio Ultzamari.

Baño guzien gañetik Ultzamako amalau erri guztietako urra- tserik onena elkartasuna izan da. Anañtasunak Ultzamari elkar- naia, poza, eta indarra eman dizkio. Auxe bai dela Nafarroko Erri eta Balle guztietako gauzarik premiatsu eta bearrezkoena Ultza- mak erakusten diguna.

Ontaz gañera Ultzamako gaztedia bizikera onaren aldeko as- moak ditu. Frontoi aundi eder ertsi bat eitea, zine eta beste jos- tagarri batzuek izanen lituzkena, egitekotan da.

Alkozko maiatzaren amabostgarrenean izaten da eta bi azken urte oietan gaztediari eskerrak indarberritu da.

Ultzamako Balea, gaurkoan, egiazio eraberritzeko bideetatik ibiltzen asia dela pozez beterik erran dezakegu.



NAPARROKO BIZIA

(1'garren orrialdetik)

Or daude baserrietako bideak ere; 1.500 baserri bide txarre- kin Nafarroan. Diputazioak zer- bait egiteko gogoia baluke.

Bi batzorde izendatuak izan dira, azken denbora auetan, erri- tako itxura ona begiratzeko. Tu- rismo delakoaren juntak gure erriak apaintze eta garbi euki- tzeari kasu eginen dio. Urbanis- mo'koak, berriz, emendik aurre- ra egiten direnak behar den le- ran egiteari.

Lurra gora dijoala ta orube ta etxe jasotzekoak ez ditezen ain- beste igo, atera dute lur gares- tien legea. Balio aundikoen zati bat langillen etxe egiteko ken- duko diote nagusiari. Lau urte- ko iraupena du lege onek.

Eldu zaigun urteari begiratu- ta, uzta onaren atarian gaudela esan ginezake. Kanpoa oso itxu- ra onean dator. Gosea hiltzeko modua izango dugu, gauzak ma- kurtzen ez badira. Eta egarria, zer esanik ez; ardo zaharra ere bada oraindiko, beintzat.

Ohitura den bezela Yurramen- diko Beila ospatu zen.

Berrioplanon, erriatiko aintzi- ñeko gauz zaharren bil tokia ba- da. Erakustaldi aipatu bat egin dute eta Iruñeko agintariak joan dira eta «Amigos del País» el- kargoaren babesean egin dute.

txapezpiku Yaun Agurgarriak be- deikazioa emanik eta ospe aundiko Yaunek egun aipagarri orrerri buruz itzaldi oroigarriak egin zituztelarik. Yende aunitz bildu zen bestari oho- re aundia eman ziotela, an baziran Eliz-Gizon agurgarriak, Erri-aiñ zindari, ikasle ohi eta Baztango yende asko.

Zorionak Aita kaputxinoei eta Jaungoikoaren laguntzarekin suerte on bat izan dezatela.

Se espera que la Diputación dé normas concretas para la construcción de caminos a los caseríos, normas que se esperan con mucha impaciencia. Quizá cerca de 1.500 caseríos carecen de comunicación en nuestra tierra.

Ultimamente se ha creado la Dirección de Turismo que ya está empezando su labor. Se nota que todos los Sres. Alcaldes se preocupan de obedecer la circular de la Diputación relativa a la limpieza y embellecimiento de los pueblos.

También se ha creado última- mente la Subdirección de Urbanismo cuya misión es asegurar que el crecimiento de los pueblos de Navarra se haga con orden.

Ha sido publicado el acuerdo relativo al nuevo impuesto llamado de Plus-Valía de terrenos. En uno de sus artículos dice que el producto de este impuesto se aplicará durante los cuatro años próximos a ayudar la construcción de viviendas sociales.

Hasta este momento las noticias del campo en toda Navarra son buenas esperándose buena cosecha.

Se celebró la tradicional Romería de Montejurra.

Se celebra una exposición etno- gráfica por «Los Amigos del País» en Berrioplano a la que asiste y pronuncia unas palabras el Excmo. Sr. Gobernador Civil.

Orain espero dugu Euskera xahar maitagarriari azken urte oketan baño arreta aundiago emango zaio; ala bada Baztango Balbari dagokion euskalduntasuna Lekarotzko Ikastegi eraberritzearekin batean berpiztuko da, eta Lekarotzko Kaputxinoek euskerari maitasunaren aldeko zaletasuna, aspaldin zeukaten bezelakoa beintza, agertuko dute.

GOIZUETA EGO ALDETIK



Menditartean, ibaiaren bi erazetan, guxkurtuta dago Goizueta, napar erri polita. Aspaldi batean burni-olak ugari zitun. Gero meatze, edo minatan, tarteka, tarteka lana sortzen da. Lan onek bizia ematen du alde batera baño ondore txarrak ere utzitzen dizkigu: langilleetan «sili- cosis» deritzaion gaitza eta Urumean amorraian ondamera.

Baserri pranko badauzka Goizuetak, baño banaka, banaka, ustutzen ari dira. Orain ere badijoaz Alkaxarra, Danbolinborda eta Kuxiñenekoak... gerok ikusten ditugula ogeitabost gutxienez ustu dira.

Bost auzotan banaturik daude Goizuetako baserriak, bakoitzean amar- amabost badaude. Ura eta argia geienak jarria daukate eta ez daukatenak jartzeko asmo edo bideetan daude. Orain bearrezkoak dira bideak automo- bill edo beribilletan baserri oietara urbiltzeko. Beren astoakin «goti eta betti» denbora, edo beta asko galtzen dute gure baserriarrek.

Nafarroko Diputazioak laguntzak eskeñiak dauka, eunetik bostetik asi eta irurogei eta amartaraño ¿Laguntza au dala ta bideak egin dituzten Na- parroko erriak izandu al da? Jakin nai genuke eta orri onetan bertan agertzera ezlitzake gaizki etorriko.

Orain berriro, epaillaren 20'ean izan genun Berako albaiteko dan Al- danondo jauna. Baserriko gauzetaz mintzatu zan euskeraz. Baserriar mor- doxa bildu zan eta berakin alkar izketan ere luzaro egondu ziran. Leitzar bat ikusi genuen, aranoarrak gutxi xamar, geiagorentzat tokia bazan. Bear- renetako gauza bezela bei bakoitzari berak nai duenean ura edateko tres- na jartzeko esan zioten, gaur merkea eta illabete gutxitan bere burua or- daintzen zuna zalako. Ori beñepein goizuetarrek egin bear luteke.

Berriz ere etortzeko erarik baluke ongi etorria izango litzake Aldanon- do jauna.



PEDRO DE AXULAR (III)

Axularren Gvero liburuaren edizioa, erdal itzulpenarekin

Orai berriki aterata den GVERO liburuaren borzgarren edizioa, aipagarri da. Ienbiziko aldiz dakarrelako erdarazko itzulpena, A. Villasanten euskalazainak lan gaitza bururatu du, eta euskaraz ikasi nai dutenendako egoki eldu da; orrialde bakoitzean ematen baititu biak, euskara eta erdara.

GVERO irakurgaiaren izenburu propioa hauxe da: "GVERO/BI PARTETAN / partitua eta berecia / LEHENBICICOAN / EMAITEN DA ADITCERA / cenbat calte eguiten duen, luca / mendutan ibiltceac, eguitecoen / gueroce utzteac. / Bigarrenean quidatecenda... Axular Sa, / raco erretorae vildua... BORDELEN, G. Milanges Erregueren Imprima / caillea baithan. M. D. C. XLIII".

Axularren liburuak irurogei kapitulu edo buruxka ditu, —600— en bat orrialdetako mintzo yori, eder, aberats eta yostakin batean; ainbesteraino, non toki askotan idazlaren solasen ezitasunean pulumpatzen gara, gaiaren aria galzen dugun.

Han emen, latin edo erdararen sintaxis usainko hiperbaton eta esakerak kausitzen ditugu; aitortu behar da ori, Baiñan esan ere behar da, gramatikariak batzutan zorrotzegi beren erreglak eramatzen dituztela, esakunaren zentzua illundu arteraino eta grazia gal-araziz.

Ezen aipu andiko erdal idazlari batek (Barojak), idatz-estiloaz mintzo denean dio: "Hay incorrecciones que se aceptan, porque son más cómodas y expresivas, cuando estas irregularidades son una forma popular".

"Flaubert en su Correspondencia se extraña de que los grandes escritores no hayan sabido escribir (gramaticalmente). Así, Cervantes, Walter Scott, Balzac, Dickens, Dostoiewski, han sido considerados como escritores incorrectos. La perfección, cierta clase de perfección en el estilo aburre".

Huna zer dion Axularrek, bere liburuaz...; "haur da nik nahi nukeren gauzetarik bat, ene enseyu apur hunek kilika zinitzan eta gutizia, bertze enseyu hobea baten agitera, eta ene hemengo faltan ere erremediatzera.

Zeren halatan ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsia, nola munduak uste baitu eta baitaduka, dela. Orai badirudi euskarak, ahalke dela, arrotz dela, ezela iend-artean ausart, erregu, bitore eta ez trebe.

Zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek nola eskiriba eta ez nola irakur, Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, francesez edo bertze erdaraz eta hizkuntaz, hek bezain aberats eta komplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak".

Inork ere ez du gure AXULAR zarra garaitu euskara izkiriatzeko erretasunean: bestalde, gai sakonenak ere badazki, irakurgai batek behar dituen gatz eta piperrez ornitzen. Urreneko aldian, zati berezi batzutan emanen ditugu, aserreaz, kolera eta lizunkeriak mintzo direnak.

A. APAT-ETXEBARNE

Goñiko Teodosio Jaunaren Elezarra

Gure Euskal baserrietako sutondetan amaika aldiz entzun izan oi da onoko Elezarra au:

«Goñiko errian, Teodosio izeneko zaldun bat bizi zan. Gizon aberatsa eta zuzena zan. Bere emazteak Konstanza zuan izena. Errege laguntzeko edo, gerrara joan bearrean arkitu zan Teodosio egun batez eta bai joan ere. Orduan Konstanza, bere emaztea, Teodosioren gurasoekin bakarrik gelditu zan.

Denbora askoren burura, gerra bukatu zalakotz Teodosio itzuli zan bere emazte ta gurasoengana.

Goñira irixtean orra non arkitzen duan penitentziari itxurako pralle bat. Arek urbilduta, onela galdegin zion Teodosiori:

—Xaxo Jaun! Nondik zatorz?

—Gerra luze eta gogor bat igaro ondorean nere jauregira nator. Erantzun zion Teodosiok.

—Goñiko zalduna zaitugu orduan?

—Bai, ni naiz.

Orduan Pralle itxurako arek, maltzur-maltzur esaten dio:

—Ta zure emaztea beste batekin bizi dala ez al duzu entzun?

Teodosiok entzun duana siñestu gabe erantzuten dio:

—Zure biziarekin ordainduko duzu gezur ori!

Pralle itxurakoak irripar egiñaz:

—Gezurra e? Zoaz zure ezkon-gelara, ta antxen ikusiko duzu gezurra edo egia dan nik esandakoa.

Teodosiok osotara siñestu epazuan ere, ezkon-gelara joan zan. Erdi illunbetan gizon eta emakume bat lotan ikusi zituan eta irain artaz itxuturik bertan ilda utzi zituan. Itxutasun eta kezak eraginda atera zan bere etxetik laxterka eta orra non arkitzen duan, goiz-goiz meza entzunda datorren bere emazte Konstantza. Arriturik galdegin zion:

—Baño... zu emen? Gure ezkon-gelan lo zeudenak nor ziran ba?

—Zure gurasoak Teodosio, erantzun zion Konstantzak.

Orduan konturatu zan Teodosio egindakoaz. Bere pekatuaren aunditasunaz ikaratuta, barkapena erditxi nairik Erromara jo zuan. Pekatua barkatu ondorean, zazpi urtez katez jantzita ibiltzeko agindua eman zion Aita Santuak.

Erromatik itzuli ondorean, bere penitentzia beteaz Aralar mendian bizitu omen zan Teodosio. An zebillelarik, dragoiaren itxura zuan inpernuko etsaia atera omen zitzaion egun batez. Ikaratuta, Migel Goi-Aingerua deika asi omen zan Teodosio. Teodosiok deitu bezala etorri zan Migel Goi-Aingerua eta ezpata batekin dragoia il ere egin zuan. Dragoia illik gelditu zan bezin laxter, Teodosioren kateak autsita gelditu ziran.

Ondorean Teodosio eta bere emaztea, penitentzi egiñaz Aralaroko mendi mutur ortan bizitu omen ziran eta oraingo Elizaren barruan dagon elizatzoa aiek jasoa omen da.

Amak semetxoari kontatutakoa emen bukatzen da, baño begi-belarriak idekita galdegiten dio semetxoak amari:

—Ta, orain gure errira etortzen dan San Migel ori bera etorri al zan zerutik?

—Ez semetxo. Orren barruan dagon zurezko irudia orduan Migel Goi-Aingeruak Teodosiori emana omen da.

—Ta, Aralaroko mendira noiz igoko gera Ama? Galdetzen du mutil-txoak.

—Geixago aunditzen zeranean. Oñez igotzeko aiñakoa egiten zeranean.

—Datorren urtean amatxo?

—Bai seme, datorren urtean...

Orra gure ama-semeen arteko izketa. Orra Euskalerrian gizaldiz-gizaldi, agotik agora igaro diran itzak.

Maita dezagun Aralaroko Aingeru Santua ta eska lazaioan oraindano-koan bezala laguntza. «...gorde, gorde Euskalerria».

«AUÑAMENDI»

KIROLAK

ESPAÑIAKO ITZULIA

Txirindulariek Españaiko bira bukatu dute. Aurten Euskal txirindulariak nagusi atera dira.

Irabazle osoa Gabika Bizkaikoa izan da. Bigarrena Belez Arabatarra. Irugarrena gure Echeberria Eguzkitzkoa.

Mendiko Premioa edo Saria Gipuzkoako Perurena, eta bigarrena Bizkaiko San Migel izan dira irabazi dutenak.

Ari izan diren multzoen arteko Saria «Kas» multzoak artu du. Bigarren Saria Fagor taldeak bereganatu du. Españaiko Iurraldeetan txirindularitzaren zaletasuna geien duena Euskalerrria da, onengatik ezta arritzekorik Españaiko itzulia Euskalerrria eldu denian berarizko indarra eta egiazko giarra artu duenik.

PELOTA-YOKUA

ATANO X TXAPELDUN

Joan den Maiatzaren 15 egunean Eibarreko «Astelena» frontoian, Atano amargarrenak txapela Azkateri kendu zion. Badugu beraz pelota eskuzko bizibideko pelotarien txapeldun berria. Uste genuen bezela Atanoren esku bigunetan garaia zegoen, eta beren eskuak miñik gabe partidu guzian egon baitziren jokaldia irauan zuten eta aise bere nagusiari garaia eman zioten.

Zorionak Txapeldun berriari.

APOSTUAK

Noizbaitere Arruizko Txikito ta Arbeldiren arteko apostua yokatu zuten Tolosako plazan. Yoan den Maiatzaren lehenean ari izan dira napparra ta gipuzkoarra buruz buru aizkorian ta lasterka; lehenik amarna enbor metro ingurukoak moztu eta ondotik amar kilometro lasterka, biek batean asi ta lan guzia nork lasterrago egin. Yokoa asi aintzin trabesak Arbeldiren alde zauden ta asi ta ondoan ere, aizkorian gipuzkoarra aunitzez geiago baizen. Amar enborrak Arbeldik 20'28 minututan moztu zituen eta nafartarrak 25'33 m.tan, bortz minutoen bentaja atera zitiola. Txikito lasterka asi orduko Arbeldik plazari ameka itzuli emanak zituen, au da, kilometro bat eta eun metro. Eguzkiak asko berotzen zuen eta bero arekin etzagon laster asko egiterik, eta zer gertatu zen gero? Arbeldi nekatu zen, leher



GATZA

Senar-emazteak bazkaltzen ari dira, eta eskale batek ataria jo. Gizonak galdegiten dio etxeakoandeari:

—Zer eman diozu?

—Plater bat eltzeko ta amar pe-zeta...

—Eta jan du?

—...Eman diotan gusia!!

—Ongi irabaziak ditu amar pe-setak.

ARDOA

Ardoak duena, pinta bat edan orduko beste gizon bat sendiazten zaitula; eta, jakina!, beste gizon orrek ere eskatzen du bere pinta!

AXURKIA

Lau kiloko axuri-erdia erosi du jaunak:

—Afaltzeko dut.

—Gonbidatuak ba dituzu?

—Bai, bi; axuria ta ni.

AMETSA

—Gauaz, gora-gora izketan ibiltzen naiz, ametsetan. Zer esaten diazu, jaun medikua?

—Ez egin egunaz, gauaz esan nahi etzinukunik.

EDANA

—Edana naiz, baño ez nafo moz-korturik...

Juezak:

—Ori ala balin bada, ilabete bat ez baño, ogeitamar egun egingo dituzu kartzelan.

eginik eta atsik ezin artuz 34 garren itzulian gelditu zen apostua galduzatzat utzirik. Bizkitartean arruiztarra erbi bat iduri amar kilometroak akitu zituen, azkenengo bortz itzuliak «sprint» batean eginik eta apostua irabazirik. Arruizko Txikito Juan Cruz Azpiroz, irabaztun. Zorionak.

—x—

Bein eta berriz Tolosako plaza izan da apostu izigarri baten lekuko. Yoan den Maiatzaren 22'ean arizanak dire, Latasa ta Berekoetxea aizkorian buruz buru zein-geiagokan. Zortzina enbor zituzten moztu bearrak, lau 80 ontzako ta bertze lau 72'ko, biek batean asi ta nork lehena moztu. Bi aizkolariak sasoin izigarrian zauden eta nola lotu ere lanera aizkol-ukaldi ikaragarriak ematen zituztelarik.

Lenbiziko egurretik asi ta Latasak bentaja pixka bat artu zuen, gero

BAZTANGO AZIENDEEN SARIKETA



du, bei suiza ta gorri arrazako oien azteak gorki ongi ematen dituela.

Sariak atsaldean banatu zituzten, eta ongi merexiak alaere.

Azienda gaitan dabilten yakin-tsuek diote, azkenengo bortz urte auetan azientak aintzinamendu aundia izan duela, baztandar nekazariak azienda zaintzen dakitelakotz.

Egun ortan mintzatu ziren nekazari batasunaz ta gai orreri dagokion industriaz, batez ere ardigasna fabrikari buruz. Badakigu ardi-gasna onak merkatu guzietan errekte aundia dutela.

Sariketa edo "Premio" ojetan bazen zezen bat, 1100 kilotik goiti egin zuena.

Gure zorionik maitekorrenak Baztango Balleari.

Zorionak Baztango Balleari, bere aintzineriari eta nekazari guzietari, Diputazioak antolatutako azienteen sariketarak errekte aundia izan duelakotz eta gauzak ongi gertatu direlakotz.

Sariketa ortan azienda izigarri ona sartu zen, bai zaldi-beorretan nola zezen, bei ta ardietan, denak guzietan gañekoak izan baiziren.

Baztango eskualde onek erakutsi



EUSKERAREN

ALDEKO

SAILLA'REN

BERRIAK

Eldu den Garagarrillaren 19'ean Lakuntzan beste Nappar Alderdiok Bertsolari Txapelketa bat egingo du. Erriko Zine tokian, arratsaldeko zazpitan asiko da.

Si desea recibir en su casa esta publicación, exclusivamente dentro de Navarra, envíe este Boletín a: INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA, Calle Ansoleaga, 10. PAMPLONA.

BOLETIN DE INSCRIPCION

Don
con domicilio en la localidad de
Calle N.º
desea recibir a domicilio y gratuitamente el Suplemento «PRINCIPE DE VIANA».